

BADAKIGU MONDRAGON CITY CHALLENGEKO HIRUGARREN EDIZIOKO 6 FINALISTAK ZEIN DIREN!

Joan den asteartean, martxoak 4, Mondragon City Challengeko hirugarren edizioko beste fase bat amaitu zen, 2024ko urrian lehen fasea gainditu zuten 20 taldeen artean sei proiekturik onenak aukeratuta.

Egun horretan Mondragon City Challengeko epaimahaiak finalerako sailkatu diren sei taldeak zein ziren jakinarazi zuen, hiru 16 eta 18 urte bitarteko kategorian eta beste hiru 19 eta 24 urte bitartekoetan, eta orain hilabete izango dute epaimahaiaren eta bertaratutako publikoaren aurrean euren proiektuen defentsa prestatzeko, Arrasateko Amaia Antzokian aurtengo apirilaren 10ean egingo den hirugarren edizio honen amaieran.

16 eta 18 urte bitarteko kategorian hauek aukeratu dira:

- *Tanzaniako EPHATA DISCIPLES, kooperatibei Microsoft Dynamics sistema bat eman nahi dien proiektu batekin, bezeroak modu modernoan eta paperik erabili gabe funtzionatzera bideratzeko.*
- *DIANOR, Mexikokoa. RFID babesa duten diru zorroak diseinatzen dituen larrukigintzako marka bat da, kontakturik gabeko txartel lapurretak egiteko erabiltzen diren seinale elektromagnetikoak blokeatzen dituen teknologia bat. Produktuak artisautza, diseinua eta material ekologikoak uztertzen ditu.*
- *VISIONCOOK, Gipuzkoakoa. Ikusmen urritasuna duten pertsonentzako soluzio bat da, ahots interaktiboko laguntzaile bat duena sukaldaritza prozesuan gidatzeko.*

16 eta 24 urte bitarteko kategorian hauek aukeratu dira:

- *Kolonbiako OUNJE, Puerto Girongo jatetxe ekoturistiko eta komunitario bat, afrikarren ondorengoen gastronomia esperientzia kultural eta ekologikoekin uztertzen duena. Bere ikuspegiak herentzia afrokolonbiarra eta garapen jasangarria sustatzen ditu.*
- *ZIBERKOOP, Gipuzkoakoa. Zibersegurtasun sektoreko enpresa, enpresa ertainei babesa eta aholkularitza eskaintzen diena: NISA araudi berrira egokitzeko zerbitzuak, segurtasun ebaluazioak, intrusioen detekzioa eta formazioa.*
- *HIRU HEZITXO, Gipuzkoakoa. Proiektuak adimen artifizialeko tresnak inplementatzen ditu, mikro eta enpresa txikien eguneroko prozesuak optimizatzen ditu, erakunde publikoekin lankidetzan, trebakuntza eta inplementazio gidatua eskaintzen die bezeroei.*

Saria Kanadarako bidaia bat da 19-24 urteko kategoriako irabazleentzat, eta 16-18 urte bitarteko garaileek Paris bisitatuko dute.

Sei proiektuetatik 4 ALEko bazkideek tutorizatu dituztela adierazi behar da (Efhata Disciples, Visioncook, Zibercoop eta Hiru Hezitxo).

Halaber, aipatu behar da finaletik kanpo geratu diren 14 proiektuek originaltasunaren saria eramateko aukera dutela oraindik ere, 800 euroko txeketa, alegia.

Eta amaitzeko, 14 talde horiek, sei finalistekin batera, apirilaren 7tik aurrera kooperatibismoaren munduko hiriburuan, Arrasaten, lau egunez elkarrekin biziko dira, kooperatibismoak sustatzen dituen balioetan murgiltzeko, mundu osoko gazteekin batera.